

2022/2023 IKASTURTEKO PRAKTIKALDIA ARAUTZEKO ARGIBIDEAK: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEEN ETA LANBIDE HEZIKETAKO IRAKASLE TEKNIKOEN KIDEGOETAN SARTZEKO 2018ko OTSAILAREN 26ko ETA 2020ko OTSAILAREN 18ko HEZKUNTZAKO SAILBURUAREN AGINDUEN BIDEZ DEITUTAKO HAUTAKETA-PROZEDURETAN HAUTATUTAKO IZANGAIK EGIN BEHARREKOAK

Hezkuntza Sailaren Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen Ebazpenak (2022ko irailaren 5ean EHAAn argitaratu dena) arautzen du argibide hauen izenburuan aipatutako funtzionario horien irakaskuntza-praktiken prozesua.

Jarraibide hauek Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak eman ditu, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa ezartzen duen apirilaren 11ko 79/2017 Dekretuko (EHA, 2017ko apirilaren 21eko) 10. artikuluak ematen dizkion eskumenetan oinarrituta. Jarraibideen helburua da praktikaldia erabat arautzea.

1. Praktikako funtzionarioak dauden ikastetxe guztietai, zuzendariak irakasle-tutore (karrerako funtzionario) bana izendatuko die ikastetxeen dauden praktiketako funtzionario bakoitzari.

Ahal dela, irakasle-tutore bakoitzak praktiketako funtzionario baten tutoretzaz arduratuko da, baina justifikatutako arrazoia direla-eta, gehienez ere hiru praktiketako funtzionario har ditzake.

Honez gain, praktiketako funtzionarioari egin beharreko eginkizunak esleitzeko orduan, kontuan hartu beharko da Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen 2022ko uztailaren 23ko Ebazpenaren I eta II eranskinetan jasotako alderdi guztiak ebaluatu behar direla (ebazpen horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoetan sartzeko Hezkuntzako sailburuaren 2018ko otsailaren 26ko eta 2020ko otsailaren 18ko Aginduen bidez deitutako hautaketa-prozeduretan hautatutako izangaien praktikaldia arautzen da).

2. Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoen kasuan, izangaiak praktikak egiten dituen ikastetxeko zuzendaritzak proposatuta, kalifikazio-batzordeek izendatutako irakasle arituen tutoretzapean eramango da aurrera praktikaldia. Irakasle horiek ikastetxeen destinoa duten karrerako funtzionarioen artean aukeratuko dira eta izangaiak praktikak egiten dituen espezialitate berekoak izango dira; ahal izanez gero, Katedratikoen kidegokoak izango dira edo, bestela, izangaiak praktikak egiten dituen espezialitateri dagokion Didaktika Departamentu-burutzak, betiere karrerako funtzionarioak badira.

Espezialitateko Katedratiko edo Departamentuko bururik ez balego, tutorizatu behar den praktiketako funtzionarioaren kidego eta espezialitateko karrerako funtzionarioak tutore izendatuko dira.

3. Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoan sartzeko izangaien kasuan, espezialitate bereko karrerako funzionariorik ez balego, irakasle-tutore hori ez da izango praktiketako funtzionarioaren espezialitate berekoa, baina moduluak eman beharko ditu hark praktikak egiten dituen heziketa-zikloan edo, bestela, praktiketako irakasleak heziketa-zikloa ematen duen lanbide-familiako beste edozein heziketa-ziklotan.

4. Aurreko atalean adierazitako ezaugarriak betetzen dituen irakaslerik ez badago, ikastetxeko Zuzendaritzak ikastetxeko Ikasketa Burutzari proposatuko dio tutoretza-lanak egiteko, betiere ikasketaburu hori karrerako funtzionarioa bada. Hori ezinezkoa bada, karrerako beste edozein irakasle funtzionario proposatuko du, eta Kalifikazio Batzordeari proposamen hori justifikatuko dio.
5. Praktiketako funtzionarioa ikastetxeko zuzendaria denean, horren berri emango zaio Kalifikazio Batzordeari; Hezkuntza Ikuskaritzak dagozkion ebaluazio-txostenak egingo ditu eta Kalifikazio Batzordeari igorriko dizkio.
6. Praktiketako funtzionarioak klaseak ikastetxe bitan ematen dituztenean, hura atxikita dagoen ikastetxeko tutoreak eta zuzendariak egingo dituzte txostenak.
7. Ikastetxeetako zuzendariek goian aipatutako baldintzak betetzen dituzten irakasleak proposatuko dituzte tutore izateko eta, posible balitz, tutores-esperimentziarekin. Proposamenok posta arruntez bidaliko dituzte, Kalifikazio Batzordeko buruari zuzenduta, dagokion Hezkuntza Ikuskaritzara 2022ko urriaren 15a baino lehenago, tutoreok izendatzeko.
8. Praktikak, oro har, amaitutzat joko dira eta ebaluatu egin ahal izango dira irakaskuntza zuzeneko egiazko sei hilabeteko zerbitzuak egin eta gero, gutxienez 2/3eko eguneko lanaldiarekin. Epe hori amaitzean, ikuskaritzaren azken-txosten bat egingo da Kalifikazio Batzordeari igortzeko.
9. Salbuespenezko kasuetan, praktiketako funtzionarioa aldi baterako ezintasun-egoeran, amatasun-bajan edo praktikaldiaren ohiko garapena eragozten dion ezinbesteko beste kasu batean badago (ezusteko eta saihetsizineko salbuespenezko egoera), eta Kalifikazio Batzordeak baloratu eta onartu ondoren, praktikaldiak gutxienez hiru hilabete eta egun bat izan beharko du jarraian (horietatik 60, gutxienez, zuzeneko irakaskuntzakoa izango da ikasgelan edo beste hezkuntza-testuinguru batean). Salbuespenezko kasu horietan, gutxienez 2/3koa izango da eguneko lanaldia. Kasu horietan, lehentasuna emango zaio ikuskaritzari bere irakaskuntza-jardueraren garapenaren saioaren batera joateari.

Praktiketako funtzionarioak idazki bat aurkeztuko du, non adieraziko baitu zein den salbuespenezko egoera; Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariai zuzendua (Donostia kalea 1, Lakua), Vitoria-Gasteiz (posta-kodea: 01010). Idazki hori Kalifikazio Batzordeari helaraziko zaio, horren berri izan dezan eta, aldi baterako ezintasuna eta amatasun-baja ez den beste kasu bat bada, baloratu dezan, praktikaldia murriztea posible den ala ez erabakitzeko.

10. Praktikaldia amaitu eta gero eta, orokorrean, 2023ko maiatzaren 31a baino lehenago, dagokion Hezkuntza Ikuskaritzara postaz paperan bidali beharko dira ikastetxeko zuzendariaaren eta irakasle-tutorearen txostenak. Txosten horiek, erreferentziako ikuskariaren txostenarekin batera, Kalifikazio Batzordeari bidaliko dira, ikuskaritz-zerbitzuaren bitartez.

Hezkuntzako Sailaren web orrian, "Lan-arloak" atalean: "Hezkuntza Ikuskaritza" → "Ikastetxeentzat dokumentuak" → "DBH eta Helduen Hezkuntza" → "Praktiketako




funtzionarioen ebaluazioa (EPE)", txostenen ereduak eskaintzen dira; horiek praktikaldian ebaluatzeko alderdiei dagozkiem adierazleak jasotzen dituzte (alderdiak Hezkuntza Sailaren Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen Ebazpenaren I eta II eranskinetan jasota daude, argibide hauen izenburuan aipatutako funtzionarioen irakasle-praktika prozedura arautzen duena).

11. Kalifikazio Batzordeen eskumena izango da funtzionarioen praktikaldia ebaluatzea. Horretarako, jasotako txostenak izango dituzte aintzakotzat. Aldia "Gai" edo "Ez gai" kalifikatuko dute, eta Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari proposatu egin beharko diote gainditutzat jotzen den ala ez.
12. Praktikak gainditzeko, gai lortu behar da ikastetxeko zuzendariaren, funtzionarioari esleitutako tutorearen eta erreferentziako ikuskariaren txosteneko adierazle guztietan. Txostenen adierazleren batean balorazio gutxiegia badago, Kalifikazio Batzordeak Hezkuntzako Ikuskaritzari txosten osagarri bat eskatuko dio, ebazteko. Eskaera berariaz egingo da eta ezarritako prozeduraren arabera.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko irailaren 9an

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

BLANCA MARÍA GUERRERO OCEJO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



INSTRUCCIONES REGULADORAS DE LA FASE DE PRÁCTICAS A REALIZAR EN EL CURSO ESCOLAR 2022/2023 POR PERSONAS ASPIRANTES SELECCIONADAS EN LOS PROCEDIMIENTOS SELECTIVOS CONVOCADOS MEDIANTE ORDENES DE 26 DE FEBRERO DE 2018 Y DE 18 DE FEBRERO DE 2020 DE LA CONSEJERA DE EDUCACIÓN, PARA EL INGRESO EN LOS CUERPOS DE PROFESORAS Y DE PROFESORES DE ENSEÑANZA SECUNDARIA Y DE PROFESORAS TÉCNICAS Y PROFESORES TÉCNICOS DE FORMACIÓN PROFESIONAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO

Mediante Resolución de la Viceconsejería de Administración y Servicios del Departamento de Educación, publicada el 5 de septiembre de 2022 en el BOPV, se regula el proceso de prácticas docentes de las funcionarias y funcionarios citados en el título de las presentes instrucciones.

Estas Instrucciones se dictan por la Dirección de Gestión de Personal en base a las atribuciones que el artículo 10 del Decreto 79/2017, de 11 de abril, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Educación (BOPV, de 21 de abril de 2017) le concede y tienen por objeto proceder a completar la regulación del citado periodo de prácticas.

1. En todos los centros donde haya destinados funcionarias o funcionarios en prácticas la Directora o Director procederá a proponer para su nombramiento a una profesora tutora o profesor tutor, funcionaria o funcionario de carrera, para cada profesora o profesor en prácticas que haya en el centro.

Preferentemente cada profesor/a-tutor/a se responsabilizará de la tutorización de un funcionario/a en prácticas, aunque por razones justificadas podría hacerse cargo de hasta un máximo de tres.

Además, en la asignación de tareas al funcionario en prácticas, habrá de tenerse en cuenta que su desempeño deben permitir evaluar todos los aspectos recogidos en los anexos I y II de la Resolución de 23 de julio de 2022 del Viceconsejero de Administración y Servicios del Departamento de Educación, por la que se regula la fase de prácticas de personas aspirantes seleccionadas en los procedimientos selectivos convocados mediante Ordenes de 26 de febrero de 2018 y de 18 de febrero de 2020 de la Consejera de Educación, para el ingreso en los cuerpos de Profesoras y de Profesores de Enseñanza Secundaria y de Profesoras Técnicas y Profesores Técnicos de Formación Profesional de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2. En el caso de los Cuerpos de Profesoras y Profesores de Enseñanza Secundaria y de Profesores Técnicos y Profesoras Técnicas de Formación Profesional la fase de prácticas se desarrollará bajo la tutoría de profesorado experimentado designado por las Comisiones Calificadoras a propuesta de la Dirección del Centro en el que la persona aspirante desarrolle las prácticas. Este profesorado será seleccionado entre el personal funcionario de carrera destinado en el centro y de la especialidad en la que la persona aspirante desarrolle las prácticas, preferentemente del Cuerpo de Catedráticas y Catedráticos o en su defecto, Jefaturas del Departamento didáctico correspondiente a la especialidad en la que la persona aspirante desarrolle las prácticas, siempre que sean funcionarios de carrera.

En ausencia de catedráticos o catedráticas y jefes o jefas de Departamento de la especialidad serán propuestos como tutores/as los/as profesores/as funcionarios de carrera pertenecientes al Cuerpo y a la especialidad del/la funcionario/a de prácticas que deba tutorizar.

3. En el caso de aspirantes para el ingreso en los Cuerpos de Profesores y Profesoras Técnicos de Formación Profesional, si no hubiera en el centro profesorado funcionario de carrera de la especialidad del o de la aspirante, el profesor/a tutor/a, será nombrado/a entre los profesores funcionarios de carrera que, sin ser de la especialidad del tutorado, se encuentre impartiendo Módulos bien en el Ciclo Formativo donde se encuentra el profesor de prácticas bien en cualquier Ciclo Formativo de la familia profesional en la que se integra el Ciclo Formativo que imparte el profesor/a de prácticas.
4. En los casos en que no haya profesorado que reúna las características indicadas en el apartado anterior, la Dirección del centro propondrá a la Jefatura de Estudios del centro para que realice las labores de tutoría siempre que dicho/a Jefe/a de Estudios sea funcionario/a de carrera. Si esto no fuera posible, propondrá a cualquier otro/a profesor/a funcionario/a de carrera, justificando ante la Comisión Calificadora la citada propuesta.
5. Cuando la funcionaria o funcionario en prácticas sea la misma directora o el mismo director del centro, se pondrá tal cuestión en conocimiento de la Comisión Calificadora y será la Inspección de Educación la que proceda a realizar los correspondientes informes de evaluación y a enviar los mismos a la Comisión Calificadora.
6. En los casos de que las funcionarias o los funcionarios en prácticas imparten clases en dos centros educativos, la Tutora o Tutor y la Directora o Director del centro al que esté adscrito/a serán los encargados de realizar los informes correspondientes.
7. Las Directoras o Directores de los centros propondrán a profesoras o profesores que cumplan con los requisitos arriba indicados y, si fuera posible, con experiencia como tutoras o tutores, y enviarán dichas propuestas por correo ordinario, dirigidas a la atención de la Presidenta o Presidente de la Comisión Calificadora, a la correspondiente Inspección Territorial de Educación antes del 15 de octubre de 2022, a fin de proceder al nombramiento de los mismos.
8. Las prácticas se considerarán concluidas con carácter general y podrán ser evaluadas, una vez realizados seis meses de servicios efectivos de docencia directa, con una jornada diaria, como mínimo, de 2/3. A la finalización de tal periodo se emitirá un informe final de inspección dirigido a la Comisión de Calificación.
9. En casos excepcionales, en los que la persona funcionaria en prácticas se encuentre en situación de incapacidad temporal, baja maternal u otro caso de fuerza mayor (circunstancia excepcional imprevista e inevitable) que le impida el desarrollo ordinario de dicha fase de prácticas, y tras ser valorada y aceptada por la Comisión Calificadora, el periodo de prácticas deberá ser de al menos tres meses y un día de forma continuada (de los que al menos 60 días serán de docencia directa en el aula u otro contexto educativo), con jornada diaria, como mínimo, de 2/3. En estos casos se priorizará la asistencia de la inspección a alguna sesión del desarrollo de su práctica docente.

La persona funcionaria en prácticas presentará escrito indicando la situación excepcional en la que se encuentra, dirigido a la atención de la Directora de Gestión de Personal del Departamento de Educación del Gobierno Vasco, calle Donostia-San Sebastián, n.^º 1 (Lakua), de Vitoria-Gasteiz (código postal 01010). El escrito será trasladado a la Comisión Calificadora para su conocimiento y, en el caso de tratarse de un supuesto distinto al de la incapacidad temporal y baja maternal, para su valoración a efectos de considerar si cabe la reducción del periodo de prácticas.

10. Tras la finalización del periodo de prácticas, y con carácter general antes del 31 de mayo de 2023, deberán enviarse por correo ordinario a la Inspección Territorial de Educación correspondiente los informes de la Directora o el Director del centro y de la Profesora Tutora o del Profesor Tutor. Estos informes, junto con el de la inspectora o inspector de referencia serán remitidos, a través del servicio de inspección, a la Comisión Calificadora.

En la página web del Departamento de Educación, en el "Áreas de trabajo": "Inspección de Educación" → "Documentos para los centros" → "E.S.O. y E.P.A." → "Evaluación de Funcionarios en prácticas (OPE)", se ofrecen modelos de informes que recogen los indicadores correspondientes a los aspectos a evaluar en la fase de prácticas recogidos en los anexo I y II de la Resolución del Viceconsejero de Administración y Servicios del Departamento de Educación que regula el proceso de prácticas docentes de las funcionarias y funcionarios citados en el título de las presentes instrucciones.

11. La Comisión Calificadora será la competente para realizar, en base a los informes recibidos, la evaluación de la fase de prácticas de las funcionarias y funcionarios, calificando con "Apto" o "No apto" dicho periodo y haciendo la correspondiente propuesta de superación o no a la Dirección de Gestión de Personal.
12. La superación de las prácticas estará sujeta a la obtención de una graduación de suficiencia en todos y cada uno de los indicadores de los informes de la Directora o Director del centro, de la Tutora o Tutor asignado a la funcionaria o funcionario y de la Inspectora o Inspector de referencia. En caso de valoración insuficiente en alguno de los indicadores de los informes, para su resolución la Comisión Calificadora solicitará a la Inspección de Educación, de acuerdo con el procedimiento establecido, un informe complementario.

En Vitoria-Gasteiz, a 9 de septiembre de 2022

LA DIRECTORA DE GESTIÓN DE PERSONAL


BLANCA MARÍA GUERRERO OCEJO

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN